

KORRIKA

Korrika izan da protagonista martxo honetan. Irudi hunkigarriak utzi ditu bidean, baita 7 lurraldeko ikuspegia duen mezua ere:



Euskara gara eta hemen gaude. Eskutik eskura trazatu dugu gure herriaren gorpuzkera.

Hatsanturik, baina aitzina eraman gaitu gorputzak. Urrats bat eta bestea, lurrean errotuz.

Korrika dabilenean izerdiz betetzen den gorputza da gurea. Borrokaren eta desiraren aztarnak harro daramatzana. Korrika dabilenean taupadak azkartzen zaizkion gorputza da gurea. Asaldatau egiten dena. Nekatu egiten dena. Hunkitu egiten dena. Korrika dabilenean indarberritzen den gorputza da gurea. Etengabeko eraldaketak aberasten duena. Beti aurrerantz doana.

Sohüetatik, Urepeletik, Tuteratik, Hendaiatik, Barakaldotik, Gasteiztik, Eskoriatzatik... pasatu den gorputz bat egin dugu. Basa, asfaltoa, belarra, harea... zapaldu dituen. Lur zati bakoitzeko eleak ikasi dituen. Pauso sendoz dabilela dirudi, baina zalantzatia ere bada gure gorputza. Birpentsatu zalea, beharrezkoa denean iritzia aldatzen duena.

Gure gorputzak esan nahi duen dena euskaraz da, baina ez du esan nahi bakarrik euskara. Egin nahi du berba nekeaz, pozaz; botereaz, minaz. Egin nahi die orro batzuei eta irri besteei.

“Zenbat gara?” galdetzen genuenok nortzuk garen ere jakin nahi dugu orain. Nondik garen, zergatik egiten dugun hau guztia, zerk sortzen duen gutasuna. “Euskara gara” diogu, ez “euskara naiz”. Komunitateaz ari gara. Beso zabalik

dagoen gorputzaz, zeinak leihoak dituen begietan.

Urrats bat eta bestea, gorputz bat egin dugu denona. Ez dezagula ahaztu hori bihar, bakoitza berera itzultzen garenean. Euskarak egin du gorputza. Hizkuntzak eraldaketarako tresnak dira, leku bat ematen digute bizi gaitzen. Euskarak herri hau eman digu. Horregatik mintzo gara izateaz, egiteaz. Euskaraz egin egiten da, baina izatea ez da edozein gauza. Izatea egotea ere bada, nonbait mugimenduan, borrokan.

Urrats bat eta bestea, aurrekoei jasoa dakargu ahots berrietan. Honaino heldu gara, bai, baina ez gara iritsi. Oraina berehala amaitzen da. Azalberrituta datoz munstro zaharrak, baina gorputz bat sortu dugu. Askotarikoa, konprometitua, indartsua. Eta gaur hemen badago, egongo da bihar ere.

Euskara gara eta hemen gaude. Hemen gara eta euskaraz gaude.

Aurrera goaz. Bazatoz?


Leire Casamajou Elhegarai (Sohüta, 2002)
Elene Mengyu Larrinaga Bilbao (Barakaldo, 2003)
Aitzol Gil de San Vicente Pla (Hendaia, 2003)
Oier Inurrieta Garmendia (Gasteiz, 2000)
Beñat Jusue Rosano (Tutera, 1998)
Oihana Arana Cardenal (Eskoriatza, 2001)
Xalbat Alzugarai Etxeberri (Urepele, 2001)

- Bilbon, 2026ko martxoaren 29an

MINZORRI

minzorri 

dolor sordo con cosquilleo

belauetan minzorria hasi zitzaidan: me empezaron a doler las rodillas 

NORK PIZTU DU SUA?

IRITZIA

“Lanerako eskubidea aipatzen dute. Bai, lanerako eskubidea bermatu behar da, baina lanerako eskubidea ez da funtzionario izateko eskubidea. Lanpostu batzuetarako ezaugarri eta kompetentzia batzuk behar dira; hori horrela da lan guztietan. Adinagatik eta nahiko gihartsua ez izateagatik baztertzen badute norbait suhiltzaile izateko deialdi batetik, adinkeria eta diskriminazio fisikoa salatuko ditu? Haren lanerako eskubidea urratzeagatik salatuko ditu?”



Ez dute aitortu nahi mendeetako zapalkuntza politiko bortitzaren ondorioz dagoela euskara dagoen egoeran. Zapalkuntza horien ondorioak naturalak balira bezala aurkeztuz, naturaltasun horren araberako politikak nahi dituzte. Hots, euskararen alde direla diote, baldin eta euskara ez bada ateratzen jartzen dizkioten eta jarri nahi dizkioten mugetatik. CC00k, eta abarrek, euskara mugatu bat nahi dute, eta euskara mugatuak gero eta eremu murriztagoa izanen du. Horren adierazle da gazteek laster ulertzen dutela herri honetan hobe dela erdaraz mintzatzea. Hori ez da gertatzen euskara anitz inposatzen delako...”.



Eneko Bidegain

Iturria: Berria

ITZULPEN OKERRAK



HARAGIJALE

📍 Etxebarri (Bizkaia)

HARAGI-EGILEA ETA -MANIPULATZAILEA,
BEHI-HEZURRA HEZURRAREKIN
EBAKITZEN ESPERIENTZIA DUENA
Ezinbestekoa: Gidabaimena eta norberaren
ibilgailua eta haragi-manipulatzailearen
txartela
Kontratu mugagabea eta hilean 2100 euro
gordineko soldata eskaintzen dira